




NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Kolera izurria mapekin gelditu zuen aitzindaria

Londres, 1848. Kolera izurria zabaldu zen hirian, eta medikuak bi bandotan zatituta zeuden gaixotasun horren eta beste batzuen jatorria zela eta. Medikuek gehienak teoria miasmatiskoaren aldekoak ziren oraindik. Antzinarotik zetorren teoria horren arabera, miasmek (*miasma* grezieraz kutsadura) eragiten zituzten zenbait gaixotasun, hau da, lur eta ur zikinen jario kirasdunek. Beste batzuk, ordea, Louis Pasteurren teoria mikrobiano berriaren alde egiten hasi ziren. Azken horien artean zen John Snow (1813-1858). Nekazari familia baten baitan jaioa, gaztetan Killingswortheko ikatz meatzarien artean zabaldu zen kolera izurri latzaren lekuko izan zen, eta horrek bultzatu zuen gaixotasunaren aurka borrokatzea eta, horretarako, medikuntza ikastera.

1848ko kolera agerraldi hartan metodo berritzailea erabili zuen Snowek. Ez zen etxez etxe gaixoak bisitatzen ibili; kasuak mapa batean kokatu zituen eta ondorioztatu zuen ur-ponpa publiko nahiz pribatuen inguruan pilatzen zirela gaixo eta hildako gehienak. Lehen aldia zen epidemia bat aztertzeke metodo geografikoa erabiltzen zela. Hurrengo urtean London Epidemiological Society aitzindaria fundatu zuen beste mediku batzuekin batera.

1854an, beste kolera agerraldi batek ikerketarekin jarraitzeko aukera eman zion. Soho auzoan, Broad Street ingu-



John Snow epidemiologo aitzindaria, atzean Londresko Soho auzoko mapa duela. XIX. mendearen erdialdean, mapak erabiliz kolera izurriei aurre egitea lortu zuen.

ruko kilometro erdi eskaseko diamentroan, 700dik gora hildako eragin zituen aste bakarrean. Sohoko mapa bat hartu eta, auzoko parrokoaren laguntzaz nahiz Middlesex ospitaleko artxiboa begiratu, iraillean izandako hildako guztiak kokatu zituen bertan. Mapako puntutxo guztien epizentroa eta, beraz, agerraldiaren jatorria Broad Streeteko ponpa publikoa zela ikusi zuen. Agintariek ponpa itxi zezaten lortu zuen eta izurria berehala gelditu zen.

Handik urte batzuetara Londresko Osasun Kontseiluko kideek erabaki zuten berriro ere teoria miasmatiskoan sinesten zutela, ez zeudelako Sohoko ur-hornikuntza bermatzeko inbertsioak egiteko prest. Broad Streeteko ponpa berriro erabilgarri jarri zuten, eta kolera sekula baino bortitzago itzuli zen Sohora. Ordurako John Snow hilda egon arren, kolera eragin zituen ehunka eta ehunka hildakoek arrazoia eman zioten. ●

Erdi Aroko eta euskarazko rolak

Eneko Azedok *Adur* izeneko rol jokoak sortu ditu. Oso gutxi dira rol jokoetan euskaraz aritzeko aukerak eta, gehienetan, beste hizkuntzetan sortutako jokoak itzuli edo moldatzen dira horretarako. *Adur* euskaraz sortu da eta, gainera, euskal edukiak ditu. Jokoa Erdi Aroan girotuta dago eta jokalariek jokatzen

dituzten rolak euskal mitologiako pertsonaiak dira: lamiak, jentilak, Mari... Eta jokalariei ematen zaizkien egoerek gertaera historiko nahiz mitologikoak dituzte oinarri. Rol jokoak helduentzat izan ohi diren arren, Azedok arau errazak jartzea erabaki du, haur eta gazteek ere jokatuta ahal dezaten. ●



ENEKO AZEDO